otsailaren 24ko 92/2009 Erabakiaren bidez beste izen bat eman zitzaion, hain zuzen, ALDALUR ARABA, SL izena.

Seigarren paragrafoan Administrazio Kontseiluaren kideak izendatzen dira. Izendatu horien artean Emilio de Francisco Ugartondo jauna agertzen da, nahiz eta kargu jabetze hori gauzatu ez den oraindik.

Horiek horrela, izendapen hori aldatu eta aipatutakoaren ordez Andoni Erkiaga Agirre jauna izendatzen da.

Horregatik, Nekazaritza Saileko Foru Diputatuak hala proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DUT:

Bakarra.- Abenduaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 876/2008 Erabakiaren seigarren paragrafoa aldatzea; hau da, aholkulari Emilio de Francisco Ugartondo jauna izendatu beharrean Andoni Erkiaga Agirre jauna izendatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 22a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LOPEZ.– Nekazaritza Saileko foru diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.– Nekazaritza zuzendaria, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**2963**

**199/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 16koa, Arraia-Maeztuko udal planeamenduko arau subsidiarioak behin betiko onartu eta horien 6. aldaketa puntuala, bost herrigunetan eragina duten zehaztapen batzuen gainekoa, zati batean eteten duena.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2007ko abenduaren 3an Arraia-Maeztuko Udalak planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Azken horretarako, iragarki bana argitaratu zen 2007ko urtarrilaren 16ko ALHAOn (7 zenbakia), 2008ko urtarrilaren 11ko "Diario de Álava" egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Hasierako onarpen horren jakinarazpena Arraia-Maeztuko administrazio batzarretako kontzejuei egin zitzaien.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu eta udalak, 2008ko martxoaren 3an, behin-behineko onarpena eman zion.

Epez kanpo, 2008ko apirilaren 3an, alegazio bat aurkeztu zen; udalaren zerbitzu teknikoek horren gaineko txostena egin eta 2008ko apirilaren 7an udalak onartu egin zuen.

Laugarrena.- 183/2003 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak ingurumen eraginaren azterlan bateratuari buruzko ingurumen eraginaren behin betiko txostena egin zuen 2009ko urtarrilaren 27an.

Bosgarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak iritzia agertu zuen irailaren 18ko 6/2008 bilkuran.

Seigarrena.- Arraia-Maeztuko Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2009ko otsailaren 13a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

posteriormente redenominada mediante Acuerdo 92/2009, de 24 de febrero, como ALDALUR ARABA, S.L.

En el apartado sexto se procede a la designación de los miembros del Consejo de Administración, entre los cuales se incluye a Emilio de Francisco Ugartondo, cuya aceptación del cargo todavía no ha sido formalizada.

Procede no obstante modificar dicha designación por la de Andoni Erkiaga Agirre.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Agricultura, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, se adopta el siguiente

ACUERDO:

Único.- Modificar el apartado sexto del Acuerdo 876/2008, del Consejo de Diputados de 9 de diciembre, en cuanto designa como Consejero a Emilio de Francisco Ugartondo, sustituyendo dicha designación por la de Andoni Erkiaga Agirre.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputada Foral de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.– Director de Agricultura, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**2963**

**ORDEN FORAL 199/2009, de 16 de abril, de aprobación definitiva y suspensión parcial de la 6ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, referida a varias determinaciones que afectan a cinco de sus núcleos de población.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 3 de diciembre de 2007, el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu acordó aprobar inicialmente la 6ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA núm. 7, de 16 de enero de 2007, y en el periódico "Diario de Álava" de 11 de enero de 2.008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- De dicha aprobación inicial, en fecha 7 de enero de 2008, fueron notificados los Concejos de las Juntas Administrativas de Arraia-Maeztu.

Tercero.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna y el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 3 de marzo de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente.

Fuera de plazo, el 3 de abril de 2008 fue presentada una alegación, que una vez informada por los servicios técnicos municipales, fue estimada por el Ayuntamiento en sesión de 7 de abril de 2008.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto 183/2003, el Servicio de Medio Ambiente y Diversidad de la Diputación Foral de Álava emitió en fecha 27 de enero de 2009 el Informe Definitivo de Impacto Ambiental correspondiente al procedimiento de Evaluación Conjunta de dicho Impacto.

Quinto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, el expediente fue informado por la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 6/2008, de fecha 18 de septiembre.

Sexto.- El Ayuntamiento de Arraia-Maeztu remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo entrada el día 13 de febrero de 2009.

Zazpigarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluko 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak martxoaren 31ko 3/2009 bilkuran espediente honen berri eman zuen.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Norbanakoek eskaera egin ondoren, udalaren ekimeneko espediente horretan proposatu da egun indarrean dauden udal arau subsidiarioetako 13 zehaztapen (2003-01-20an behin betiko onartu eta bost herrigunetan eragina dutenak) aldatzea. Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da.

Bigarrena.- Hona dokumentuan jasotzen diren proposamenak:

“PARAMETRO OROKORRAK

1. Eraikinetan aldaketak egiteko esku hartzeei eta, horien artean, katalogatu gabeko eraikinetan eraikuntza berria egiteari aplikatu beharreko zona guztietarako hirigintza eta eraikuntza parametroetan eraikigarritasuna gehitzeko aukera ematen duen puntu bat sartu da. Eraikigarritasun horrek dagokion gunean baimendutakoa gainditu dezake, baldin eta alde horretan dauden gehieneko garaierak gainditzen ez baditu.

2. Eraikinetan aldaketak egiteko esku hartzeei eta, horien artean, katalogatu gabeko eraikinetan eraikuntza berria egiteari aplikatu beharreko hirigintza eta eraikuntza parametroetan etxebizitza kolektiboa baimentzen duen puntu berri bat sartu da, hiri lurzoruan dauden gune guztietarako. Etxebizitza bakoitzean 150 m$^2$ birgaitzeko parametroa eta lurzati bakoitzean gehienez 4 etxebizitza egoteko muga ezarri duen parametroa kendu dira. Etxebizitzaren 100 m$^2$ bakoitzeko garaje plaza 1 edukitzeko aurreikuspena mantenduko da, baldin eta birgaitu beharreko etxebizitzaren morfologiak horretarako aukera ematen badu.

3. Kendu egin da lurzati eraikigarriko 300 m$^2$-ko gutxieneko muga, Arraia-Maeztuko arau subsidiarioak behin betiko onartzen direnean dauden lurzatietan.

ALDAKETAK UDALAREN LURZATIETAN

4. Udalak arau subsidiarioen 5. aldaketa puntuala izapidetu zuen, erabilera anitzeko eraikin bat egiteko Mendikoi eraikin zaharreko udal bulegoen ondoan, Maeztu herrian. Horretarako, hain zuzen, orain kultura eta hezkuntzako komunitate ekipamendu moduan erabiltzen den Teleclub izeneko eraikina bizitegi moduan erabiltzeko prestatu nahi da, erabilera anitzeko aukera berria gauzatzen denean. Lurzatia Maeztuko U.E. 11 da (11. fitxa).

5. Maeztuko ikastolaren lurzatian okupatuta ez dagoen azaleraren zati bat, gutxi gorabehera 695 m$^2$-ko azalera duena, jolastoki moduan erabiltzen da eta espazio libre bezala dago kalifikatuta. Hori dela eta, ezin da estali. Gune huts moduan kalifikatzeko proposatu da eta, espazio librearen murrizketa konpentsatze aldera, udaletxeko hiri katastroan jasotako udal lurzatia (2. poligonoa 1175 zenbakia) definituko da. Azken lurzati honek 782,17 m$^2$-ko azalera dauka eta Tellazarreko industrialdearen plan partzialeko testu bateratuan espazio libreko industri erabileradun bezala definitzen da.

6. Aipatutako 5. aldaketa puntualaren ondoriozko kultura eta hezkuntzako ekipamendu orokorraren azalera aldatu da. Geltokiaren kalean dago eta hiri katastroan 1. poligonoko 345 lurzati moduan jasotzen da; 87,17 m$^2$-ko azalera gehitu zaio baina, horretarako, espazio libreetarako alboko zonari azalera hori kendu behar zaio. Aldaketa hori konpentsatzeko, lurrari kalifikazio berria eman zaio: Maeztuko 2. poligonoko 1175 lurzatiaren espazio librea da. Beraz, azaldutako guztia kontuan hartuta, espazio libreak ez dira txikitu.

ALDAKETAK BESTE LURZATI BATZUETAN

7. Katastroan industriako 1. hiri lurzoruko 2. poligonoko 193 –d- ezaugarriekin jasotako azpi lurzati osoa sartu da, arau hauek onartu

Séptimo.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 3/2009, de 31 de marzo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente, de iniciativa municipal y con solicitudes de particulares, propone modificar 13 determinaciones actuales contenidas en las Normas Subsidiarias Municipales vigentes, aprobadas definitivamente el 20.ene.03, que afectan a 5 de sus núcleos de población, y ha sido tramitado siguiendo el procedimiento establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Segundo.- Las propuestas del documento son:

“SOBRE PARÁMETROS GENERALES

1. Se incluye un punto en los parámetros urbanísticos y edificatorios aplicables a las intervenciones constructivas de modificación, incluida la reedificación en edificios no catalogados, para todas las zonas, que permite el aumento de la edificabilidad, aun estando esta, por encima de la permitida en su área, siempre y cuando no se superen las alturas máximas para dicha zona.

2. Se incluye un punto en los parámetros urbanísticos y edificatorios aplicables a las intervenciones constructivas de modificación, incluida la reedificación en edificios no catalogados, para todas las áreas ubicadas en suelo urbano, que permita la vivienda colectiva, eliminando el parámetro de 150 m$^2$ rehabilitados por cada vivienda y el de limitación a 4 viviendas máximas por parcela. Se mantendrá la previsión de 1 plaza de garaje por cada 100 m$^2$ de vivienda siempre y cuando la morfología de la vivienda a rehabilitar lo permita.

3. Se elimina la limitación de 300 m$^2$ mínimo para parcela edificable en parcelas existentes en el momento de Aprobación Definitiva de las Normas Subsidiarias de Arraia-Maeztu.

MODIFICACIONES EN PARCELAS MUNICIPALES

4. El Ayuntamiento tramitó la 5ª modificación puntual de Normas Subsidiarias, para la construcción de un edificio multiusos junto a las oficinas municipales del antiguo edificio Mendikoi, en la localidad de Maestu. A la vista de lo cual se pretende destinar el edificio denominado Teleclub, utilizado en la actualidad como equipamiento comunitario cultural y docente, a uso residencial una vez ejecutado el nuevo multiusos. Se define la actual parcela como U.E. 11 (ficha 11) de Maestu.

5. Parte de la superficie no ocupada de la parcela de la ikastola de Maestu destinada a patio con una superficie aproximada de 695 m$^2$ se califica en la actualidad como espacio libre, situación esta que impide la posible cubrición del mismo. Se propone su calificación como Área Vacante y como compensación a la reducción de espacio libre se definirá la parcela de propiedad municipal referenciada en el catastro de urbana de este Ayuntamiento como parcela 1175 del polígono 2 que dispone de una superficie de 782,17 m$^2$ y definida en el texto refundido del plan parcial del polígono industrial Tellazar como de uso industrial como espacio libre.

6. Se modifica la superficie del equipamiento general cultural y docente, obtenido en la modificación puntual 5ª, situado en la calle la estación y referenciado en catastro de urbana como polígono 1 parcela 345 aumentado este una superficie de 87,17 m$^2$, para ello es necesario reducir la zona colindante, destinada a espacios libres, situación que se compensa con la nueva calificación de terreno como espacio libre de la parcela 1175 del polígono 2 de Maestu. De esta manera y teniendo en cuenta el punto anterior, los espacios libres no se ven mermados.

MODIFICACIONES EN OTRAS PARCELAS

7. Se incluye la totalidad de la subparcela referenciada en catastro como 193 –d-, polígono 2 en el suelo urbano industrial 1, tal y como

arte zegoen bezalaxe. Aldatutako D-11 eta F-11 planoetan ikus daiteke aldaketa hori.

8. Bestalde, 2. poligonoko 112 lurzatia Maeztuko U.E-12 egikaritze unitate batean, etxebizitza kolektibodun bizitegi erabilerarako den batean, sartu da; alabaina, eraikina egokitu egin beharko da: eranskinak eraitsi, estalkiak bateratu eta fitxan zehazten diren gainerako jardunak.

D-11 eta F-11 planoetan eta 11. kudeaketa fitxan zehazten da aldaketa hau.

9. Apinaizko UE1 egikaritze unitatea desegin da. Horretarako, bideak gehiago zabaldu, eta lurzatiak zuzeneko jarduketa sisteman sartu dira; hain zuzen ere, lurzatiaren itxitura eta gainontzeko SUR 4 sektorea urbanizatu egingo da.

10. Azazetan, 3. poligonoko 251 lurzatiaren 3.000 m$^2$-ko SUR 4 hiri lurzoruan sartu da. Horrela, Azazetako UE-5 egikaritze unitaterako 5. fitxan deskribatzen diren hiru etxebizitza egin ahal izango dira.

11. Sabandoko administrazio batzarrak 6. poligonoan duen 273 lurzatia Sabandoko hiri lurzoruan sartu da. U.E-6 egikaritze unitate bezala deskribatu da eta 12. fitxan definitu. Hiru etxebizitza eraiki daitezke bertan.

12. Sabandoko hiri lurzoruan sartu da 6. poligonoko 566 fitxa. U.E-7 egikaritze unitate bezala deskribatu da eta 13. fitxan definitu. Sei etxebizitza eraiki daitezke bertan eta ekipamenduetarako hornidura bat gorde da. Jardun horren barruan, egungo erabileren benetako egoera zein den erakusteko asmoz, 6. poligonoko 47. lurzatia ekipamendu bezala kalifikatu da, orain arte bezala; horrez gain, hiri lurzoru gisa berriz sailkatutako lurzatiaren zati bat (6. pol., 566 zk.) berdegune publiko moduan kalifikatu da, berdegune publikoetarako lurzoruaren azalera ez murrizteko.

13. Ibisateko 5. poligonoko 111 lurzatiaren 37,48 m$^2$-ren kalifikazioa aldatu da: lehen, bizitegirako hiri lurzoruan lurzati lokabearen kalifikazioa zuen eta orain komunikazioen tokiko sistemarena. Era berean, 5. poligonoko 111 lurzatitik hurbil dagoen komunikazioen tokiko sistemako 37,85 m$^2$ aldatu dira: bizitegirako hiri lurzoru moduan kalifikatu da.”

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Arabako Lurralde Antolamendurako Atalak, irailaren 18ko 6/2008 bilkuran, espedienteari buruzko txostena egin zuen. Hona hemen hitzez hitz:

“I.- Bizitegien zenbaketari dagokionez, Lurralde Antolamendurako Jarraibideetako 12. artikuluko 4.11. puntuan jasotzen den irizpide erreferentziala eta Araba Erdialdeko LPParen Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-5 betez, espedientea behin betiko onartu ahal izateko Sabandon proposatu den hazkundeak (6. poligonoko 273 eta 566 lurzatietako aldaketak, UE-6 eta UE-7 egikaritze unitateak sortuz) ezin du gainditu egun dagoen etxebizitza kopuruaren % 100, gauzatzeko dagoen edukiera ere kontuan hartuta.

II.- Maeztuko 1. poligonoko 345 lurzatian 87,17 m$^2$ sartzea proposatu da, Geltoki kalean erabilera anitzetarako inguruan dagoen Espazio Libreen Sistema Orokorretik kenduta; baita 2. poligonoko 1175 industri lurzatian azalera kopuru bera (Tellazarreko SAUI-1 sektorea) Espazio Libreen Tokiko Sistema moduan kalifikatzea ere. Bestalde, udalak proposamena gauzatzeko baimena eskatu dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 105.7 artikulua betez. Aipatutako aldaketa eta eskaera egin ahal izateko, dena den, espedientea behin betiko onartu behar da eta azalerako Espazio Libreen Sistema Orokorraren kalifikazioak EAELABaren baimena izan behar du.

III.- Organo eskudunari jakinaraziko zaizkio, behin betiko onar ditzan, txosten proposamenean gai hauei buruz dauden gogoetak: etxebizitzen eraikigarritasunean espedienteak baimentzen duen gehikuntzari espazio libreen dotazio handiagoa exijitzea, indarreko arautegien fitxak ez egotea, eta SUR-5 eremurako proposamena. Katalogatu gabeko eraikinak aldatzeko/berreraikitzeko eraikuntzako esku hartzeetan aplikatu behar diren parametro orokorren aldaketek azken proposamen horrengan ere eragiten baitute.

estaba hasta el momento de la aprobación de las presentes normas. Esta modificación se refleja en los planos modificados D-11 y F-11.

8. Se incluye la parcela 112 del polígono 2, en una unidad de ejecución U.E-12 de Maestu, de uso residencial en vivienda colectiva condicionándola a la adecuación del edificio, lo que incluye la demolición de anexos, unificación de cubiertas y demás actuaciones que se detallan en su ficha.

Esta modificación se concreta en los planos D-11 y F-11 así como en la ficha de gestión 11.

9. Se disuelve la UE1 de Apellaniz, aumentando la anchura de vial e incluyendo las parcelas en un sistema de actuación directa que incluye la urbanización del cierre de parcela como el resto del SUR 4.

10. Se incluye en Suelo Urbano SUR 4 de 3.000 m$^2$ de la parcela 251 del polígono 3, en Azáceta. Para el desarrollo de tres viviendas descrita en la ficha 5 para la UE-5 de Azáceta.

11. Se incluye la parcela 273 del polígono 6 propiedad de la Junta Administrativa de Sabando, en el suelo urbano de la localidad de Sabando. Se describe como U.E-6 y se define en la ficha 12. Se permite la construcción de tres viviendas.

12. Se incluye en el suelo urbano de la localidad de Sabando la ficha 566 del polígono 6. Se describe como U.E.-7 y se define en la ficha 13. Se permite la construcción de seis viviendas, y se reserva una dotación para equipamiento. Dentro de esta actuación y con la finalidad de reflejar la situación real de los usos actuales se califica la parcela 47 del polígono 6 como de equipamiento que es el se viene desarrollando en la actualidad, y se califica como espacio verde público parte de la parcela reclasificada como urbana (nº 566 pol. 6) a fin de no disminuir la superficie del suelo destinado a zonas verdes públicas.

13. Se modifica la calificación de 37,48 m$^2$ de la parcela 111 del polígono 5 de Ibisate cambiando su calificación de parcela independiente en suelo urbano residencial a sistema local de comunicaciones, y de igual manera se modifican 37,85 m$^2$ del sistema local de comunicaciones próximo a la parcela 111 del polígono 5 calificándolo como suelo urbano residencial.”

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, en su sesión 6/2008, de 18 de septiembre, ha informado el expediente los siguientes términos:

“I.- En cuanto a cuantificación residencial, y en cumplimiento del criterio referencial del punto 4.11 del capítulo 12 de las D.O.T. y de la Regulación de Nuevos Crecimiento RNC-5 del P.T.P. de Álava Central, condicionar la aprobación definitiva del expediente a que el crecimiento propuesto en Sabando (modificaciones referidas a las parcelas 273 y 566 del Polígono 6, creando las Unidades de Ejecución UE-6 y UE-7), añadido a la capacidad pendiente de ejecución, no supere el 100% de viviendas existentes.

II.- En cuanto a la modificación referente a la parcela 345 del Polígono 1 de Maestu que plantea la reposición de 87,17 m$^2$ restados al actual Sistema General de Espacios Libres del entorno del multiusos de la calle La Estación con la calificación como Sistema Local de Espacios Libres de idéntica superficie en la parcela industrial 1175 del Polígono 2 (Sector SAUI-1 Tellazar), y a la solicitud de la autorización de la Comisión de Ordenación del Territorio País Vasco prevista en el artículo 105.7 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo que al respecto de tal propuesta hace el Ayuntamiento, condicionar tanto la aprobación definitiva del expediente como la referida autorización de la C.O.T.P.V. a la efectiva calificación como Sistema General de Espacios Libres de tal superficie.

III.- Trasladar al órgano competente para la aprobación definitiva las reflexiones contenidas en el cuerpo de la propuesta de informe referidas a la mayor dotación de espacios libres exigible al incremento de edificabilidad residencial posibilitado por el expediente, y a la falta de las Fichas normativas vigente y propuesta de la Zona SUR-5, que resulta también afectada por la modificación de parámetros generales aplicables a intervenciones constructivas de modificación-reedificación de edificios no catalogados.

IV.- Aldaketa espediente honen xede ez den arren, esan behar da Maeztuko SAUR-2 lurzoru urbanizagarriko sektoreak ez daukala antolamendu xehakaturik, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea indarrean sartu aurretik behin betiko onartua. Gainera, gutxienezko eraikigarritasuna ez du betetzen: 0,25 $m^2c/m^2$, 77.4 artikuluaren arabera (indarrean dauden arau subsidiarioek 0,20 $m^2c/m^2$tan mugatzen dute; zuzendu beharreko kontua da). Beraz, udalari gomendatu behar zaio arau subsidiarioak aipatutako legearen eduki eta zehaztapenei egokitzeko.

Horretarako, EAEko Lurralde Antolaketa Batzordeko lehendakariaren 2008-03-06ko zirkularrean adierazitakoa bete beharko du, "Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legean, EAEko Lurralde Antolaketako Jarraibideetan, eta Araba lurralde historikorako Lurralde Plan Partzialetan eraikigarritasunaz, eta bizilekuen kopuru eta dentsitateaz azaltzen diren zehaztapenak arabar herrixketan aplikatzeari dagokionez", txosten proposamenaren gorputzean zehaztu denez.

V.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen batzordeari buruzko lehen xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoak ondorioak izan ditzan, erabaki honek eragindako baldintzak sartu ondoren, espedientea behin betiko onartu ahal izango da, eta horretarako, batzorde honek ez du zertan berriz ere balioetsi behar izango".

VI. Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eginiko txostena espedientea behin betiko onartu behar duen organo eskudunari bidaliko zaio (I. eranskina)."

Laugarrena.- Ingurumen eta Biodibertsitaterako Zerbitzuaren behin betiko ingurumen eraginaren txostenaren arabera, behin betiko onartzen den dokumentuan, behin betiko onartzeko aurkeztu den dokumentuan daudenez gain, ingurumena babesteko eta zuzentzeko neurri hauek sartu behar dira:

Aldaketaren IEBEko azterlanean daudenak (zehazki 1. eranskinean: ingurumen eraginaren baterako ebaluazioko azterlanaren 6) idatz zatiaren garapen xehatua, babes eta zuzenketa neurriei buruzkoa), eta ingurumen eraginaren aurretxostenean daudenak. Era berean, IEBE azterlana osatzen duen aldaketa puntualaren ondorioak gainbegiratzeko programa sartu behar da.

Bosgarrena- Herri Lan eta Garraio Saileko Errepide Zerbitzuaren txostenak ondoko baldintza hauek zehazten ditu Sabandon proposatutako jarduketetarako:

"-UE-6 eta UE-7 egikaritze unitate bietan, errepidearen jabari publikoaren eremua mugatu beharko da. Komunikazio sistema orokorra erantsiko da, eta plano egokietan adierazi behar da.

- UE-7rako, toki errepidean hiri lurzoru finkatu gaberako Arabako Errepideen 2004-2015 Plan Integralean definitutako idatz zatia erabiliko da. Eguneko batez besteko intentsitatea <500 ibilgailukoa da.

Eraikinetik errepidearen ardatzera dagoen tartea: 11 m.

Itxituratik errepidearen ardatzera dagoen tartea: 8 m.

Itxituratik galtzadara 2 metroko zabalera duen espaloia eta 2 metroko zabalera duen lorategia egongo dira.

- Bazterbidearen eta berdegunearen artean ertzeko erreten bat eraikiko da, etenik gabea. Zintarria izango du, errepidera erortzen diren urak husten direla bermatzeko moduan.

- UE-6rako, eraikuntza lerroa 25 metrotara dago, galtzadaren kanpoko ertzetik (eskumako ertza, errepideko kanpoko erreitik ibiliz gero). Lurzatia ixteko lerroa errepidearen zortasun eremutik kanpo jarriko da, gutxienez 8 metrotara, zabalgunearen kanpoko ertzetik (lur erauzketaren ezpondako, lubetako edo, egotekotan, lur naturalaren mugakide diren eustormetako bidegurutzea). Zortasun aldeak soilik izan dezake berdegunerako erabilera.

- Azkenik, UE-6 eta UE-7 egikaritze unitateetarako ez da baimenduko errepidetik zuzenean sartzea. Barne bideen bitartez konpondu behar dira".

IV.- Aun no siendo objeto del presente expediente de modificación, con respecto al Sector de Suelo Urbanizable SAUR-2 de Maestu que no cuenta con ordenación pormenorizada aprobada definitivamente con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo y es incumplidor de la edificabilidad mínima de 0,25 $m^2c/m^2$ establecida en su artículo 77.4 (las vigentes NN.SS. limitar ésta a un máximo de 0,20 $m^2c/m^2$, aspecto necesitado de subsanación), procede recomendar que el Ayuntamiento promueva la adaptación de las NN.SS. a los contenidos y determinaciones de la referida Ley.

A tal efecto, se estará lo señalado en la Circular de 06.03.08 de la Presidenta de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, "en relación con la aplicación en las aldeas alaveses de las determinaciones sobre edificabilidad, cuantificación y densidad residenciales establecidas en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, Directrices de Ordenación Territorial de la C.A.P.V., y Planes Territoriales Parciales recayentes en el Territorio Histórico de Álava", según se concreta igualmente en el cuerpo de la propuesta de informe.

V.- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones establecidas en este acuerdo, el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a la valoración de esta Comisión.

VI.- Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente el informe emitido por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental (Anexo I)."

Cuarto.- El Informe Definitivo de Impacto Ambiental del Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad determina que en el documento que se apruebe definitivamente, además de las ya incluidas en el documento presentado para la Aprobación definitiva, se incluyan las siguientes medidas de protección y corrección ambiental:

Las incluidas en el Estudio de ECIA de la Modificación, en el Anejo 1: desarrollo detallado del apartado 6) del Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental relativo a medidas protectoras y correctoras y en el Informe Preliminar de Impacto Ambiental. Igualmente debe incluirse el Programa de Supervisión de los efectos de la Modificación Puntual que forma parte del Estudio de ECIA.

Quinto.- El informe del Servicio de Carreteras del Departamento de Obras Públicas y Transportes, determina las siguientes condiciones para las actuaciones propuestas en Sabando:

"- En ambas unidades de ejecución, UE-6 y UE-7, deberá delimitarse la zona de dominio público de la carretera quedando incorporado el sistema general de comunicación y debiendo ser reflejado en los correspondientes planos.

- Para la UE-7, se utilizará la sección definida en el Plan Integral de Carreteras de Álava 2004-2015, para suelo urbano no consolidado en carretera local con una IMD <500 vehículos/día:

Distancia de la edificación al eje de la carretera: 11 m.

Distancia del cierre al eje de la carretera: 8 m.

Entre el cierre y la calzada habrá una acera de 2 m de ancho y una zona de jardín de 2 m de ancho igualmente.

- Entre el arcén y la zona verde se construirá una rigola continua delimitada con bordillo de manera que quede asegurado el correcto desagüe de las aguas que caigan sobre la carretera.

- Para la UE-6 la línea de edificación se fija a 25 m. de la arista exterior de la calzada (borde derecho en el sentido de la marcha del carril exterior de la carretera) y la línea de cierre de parcela se situará fuera de la zona de servidumbre de la carretera, a una distancia mínima de 8 m. desde la arista exterior de la explanación (intersección del talud del desmonte, del terraplén o, en su caso, de los muros de sostenimiento colindantes con el terreno natural). La zona de servidumbre únicamente podrá destinarse al uso de zona verde.

- Finalmente, para ambas unidades de ejecución UE-6 y UE-7, no se permitirá ningún tipo de acceso directo desde la carretera, debiendo ser resueltos mediante la vialidad interna."

Seigarrena.- Oraingo parametro orokorrak aldatzen dituzten proposamenetan, udal lurzatiak aldatzeko proposamenetan, hiri lurzoruan dauden lurzati pribatuetan, eta lurzoru urbanizaezinean dagoen eta 2-193-d izena daukan titulartasun pribatuko azpi lurzatian ezin da eragozpenik jarri, salbu eta SUR-1-Tellazaren 782,17 $m^2$ (Maeztuko 54 eta 1-51 lurzatietan birkalifikatutakoen konpentsaziozkoak alegia) espazio libreen toki sistema gisa kalifikatu beharra.

Zazpigarrena.- Azazeta eta Sabandon, lurzoru urbanizaezinean dauden luzatietarako proposatu diren aldaketei dagokienez, esan behar dugu aurkeztutako agiriak ez duela argi eta garbi adierazten Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 10-14, 78 eta 79. artikuluak betetzen direnik gai hauetan: antolaketa xehatua, sistema orokorren sarea, toki sistemen sarea eta azpiegituren dotazioa.

Zortzigarrena.- Formalki, aurkeztutako agiriak zenbait gabezia dauzka. Izan ere, proposatutako aldaketei buruzko dokumentu grafiko batzuk bakarrik dakartza. Egungo agirienak, egungo edo balizko hirigintza zerbitzuenak eta azpiegiturenak, eta aldatu nahi den egitura orokor eta organikoarenak, ordea, ez dira sartu. Era berean, Sabandorako proposamenak SUR-4rako proposatutako ordenantzarekin bateraezinak dira, gutxieneko lurzatiaren parametroari dagokionean.

Bederatzigarrena.- Epez kanpo aurkeztu arren udalak baietsi duen alegazioaz soilik esan behar da ezin izango dela aurrera atera, proposamen horrek indarrean dagoen hirigintzako araudia urratzen duelako.

Hori dela bide, dauzkadan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Arraia-Maeztu udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketarako espedientearen behin betiko onarpena bertan behera utziko da, Azazeta (251. lurzatia, 3. poligonoa) eta Sabando (273. eta 566. lurzatiak, 6. poligonoa) guneetako lurzoru urbanizaezina hiri lurzoru gisa birsailkatzeko proposamenei dagokienez, harik eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 11. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla behar bezala frogatu arte.

Gainera, espedientea zehaztapen hauekin bete behar da:

1.- Egitura orokor eta organikoko plano egokiak aldatuko dira.

2.- Lurzati berrien kalifikazio xehatua sartuko da.

3.- Proposatutako eraikigarritasuna gauzatzea baimentzen duten berariazko ordenantzak sortuko dira hiri lurzoru berrientzat. Ordenantza horietan, IEBEko azterlanean jaso diren ingurumen izaerako zehaztapenak sartuko dira.

Bigarrena. Proposatu diren gainerako aldaketak behin betiko onartuko dira. Beren-beregi adierazi behar da, Maeztuko ikastolaren lurzatia aldatzeari buruz, espazio libreen tokiko sistema gisa birsailkatu diren 782,17 $m^2$en kokapena, SAUI-1 Tellazar sektoreko 2-1175 lurzatian.

Hirugarrena. Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio foru aldundiari espedientea, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Sexto.- A las propuestas que modifican actuales parámetros generales, a los que consisten en modificaciones en parcelas municipales, a parcelas privadas en suelo urbano y a la subparcela de titularidad privada en suelo no urbanizable actualmente 2-193-d, no cabe poner objeción alguna excepto la necesidad de hacer efectiva la calificación como Sistema Local de Espacios Libres en SUR-1-Tellazar de 782,17 $m^2$ suelo compensatorios de los recalificados en las parcelas 54 y 1-51 de Maestu.

Séptimo.- Con respecto a las modificaciones propuestas en Azáceta y Sabando en parcelas actualmente Suelo no Urbanizable, hay que indicar que el documento presentado no establece claramente el cumplimiento del articulado 10 a 14, 78 y 79 de la Ley 2/06 de Suelo y Urbanismo en cuanto a ordenación pormenorizada, red de sistema generales, red de sistemas locales y dotación de infraestructuras se refiere.

Octavo.- En el orden formal, el expediente presentado adolece de algunas carencias ya que sólo incluye parte de los documentos gráficos que conciernen a las modificaciones propuestas, faltando los concernientes a documentos actuales, a servicios urbanísticos o infraestructuras actuales y futuras, y a la Estructura General y Orgánica que se propone modificar. Asimismo, las propuestas para Sabando son incompatibles con la Ordenanza propuesta SUR-4 respecto del correspondiente parámetro de parcela mínima.

Novena.- Respecto de la Alegación presentada fuera de plazo hábil pero estimada por el Ayuntamiento, sólo procede indicar que no podrá prosperar al referirse a una propuesta que incumple la Normativa Urbanística vigente.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Suspender la aprobación definitiva del expediente de 6ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, en relación con las propuestas de reclasificación de suelo no urbanizable a suelo urbano de los núcleos de Azáceta (parcela 251, polígono 3) y Sabando (parcelas 273 y 566, polígono 6), en tanto no se justifique debidamente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 11 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Además, deberá completarse el expediente con las siguientes determinaciones:

1.- Se modificarán los correspondientes planos de Estructura General y Orgánica.

2.- Se incorporará la calificación pormenorizada de las nuevas parcelas.

3.- Se crearán ordenanzas específicas para los nuevos suelos urbanos que permitan materializar la edificabilidad propuesta. En dichas ordenanzas se incluirán las determinaciones de carácter ambiental que se recogen en el estudio de ECIA.

Segundo. Aprobar definitivamente el resto de las modificaciones propuestas, debiendo señalarse expresamente, en relación con la modificación de la parcela de la Ikastola de Maestu, la ubicación de los 782,17 $m^2$ de suelo que se recalifican como sistema local de espacios libres en la parcela 2-1175 del sector SAUI-1 Tellazar.

Tercero. Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Cuarto. Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Quinto. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke (administrazioen kasuan, errekerimendua) foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 16an.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**3023**

**94/2009 FORU AGINDUA, martxoaren 10ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Elciegoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa espedientea, 14 etxadiko13 eraikuntza unitateari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko otsailaren 27an, Elciegoko Udalak erabaki zuen, alde batetik, hasieran onestea Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa espedientea, 14 etxadiko 13 eraikuntza unitateari buruzkoa. Eta, beste aldetik, espedientea hilabetez jendaurrean agertzea. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren, 2008ko martxoaren 7ko ALHAOn, 29. zenbakian, El Correo egunkarian 2008ko martxoaren 13an, eta udaleko iragarki taulan.

Bigarrena.- Jendaurrean agertu beharreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu, hortaz, udalak osoko bilkura egin zuen 2008ko apirilaren 30ean.

Hirugarrena.- 2008ko abuztuaren 26an, txostena eskatu zion udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, eta hori 2008ko irailaren 29an eman zen.

Laugarrena.- Espedientea aldundira bidali zen baina akatsak zituen material edukian. Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak udalarengana jo zuen 2008ko azaroaren 14an, eta hautemandako gabeziak osatzeko eskatu zion.

Lehenengo eskaerari erantzuteko, udalak agiriak bidali zituen 2009ko otsailaren 4an.

Informazioa oraindik osatu gabe zegoela ikusirik, 2009ko otsailaren 10ean berriro eskatu zitzaion udalari egoki ziren agiriak aurkez zitzala. Azkenean, 2009ko martxoaren 4an bete du eskaera.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen helburu bakarra gune historikoko 14 etxadiko 13 eraikuntza unitateko babes erregimena aldatzea da. Eraikin hori Birgaitze Integratuko Plan Bereziko "I taldea. Izaera monumentala, 2. mota. Eraikin garrantzitsuak" eraikin taldean sailkatuta dago.

Hori alde batera utzita, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak ezartzen duen araudiak dioena ez du betetzen, ez baitago Kultura Ondarean eskumena duen organoaren eskutik kalifikatuta eta inbentariatuta.

Bigarrena.- Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egin duen txostenean, hainbat aldaketa proposatu ditu espedienteak baimentzen dituen esku hartze proposamenetarako. Izan ere, eraikina kalifikatu eta inbentariatu gabe dagoenez (horretarako beharrezko espedientea bera ez da hasi), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 97. artikuluan ezarritakoari jarraiki, ez da loteslea.

Ondorioz, agiri teknikoek nahikoa eta errespetagarria den arrazoiketa ematen dutela onartuta, espediente horrek proposatutako aldaketa udal erabakien esparrukoa da.

Hala, bada, dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 16 de abril de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**3023**

**ORDEN FORAL 94/2009, de 10 de marzo, de aprobación definitiva del expediente de Modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada de Elciego, referente a la unidad edificatoria 13, manzana 14.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 27 de febrero de 2008 el Ayuntamiento de Elciego acordó aprobar inicialmente el expediente de modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada, referente a la unidad edificatoria 13, manzana 14, así como someter el mismo, a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOTHA núm. 29, de 7 de marzo de 2008, en el Correo de 13 de marzo de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento pleno, en sesión del día 30 de abril de 2008.

Tercero.- En fecha 26 de agosto de 2008, el Ayuntamiento solicitó el pertinente informe al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, el cual lo emitió en fecha 29 de septiembre de 2008.

Cuarto.- Remitido el expediente a la Diputación y no encontrándose completo en su contenido material, el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, en fecha 14 de noviembre de 2008, se dirigió al Ayuntamiento solicitando la subsanación de las deficiencias detectadas.

El Ayuntamiento en respuesta a la demanda anterior, remitió el día 4 de febrero de 2009 la documentación que pretendía dar cumplimiento a la misma.

No obstante, apreciándose que la misma seguía incompleta, se volvió a requerir, el día 10 de febrero de 2009, del Ayuntamiento la entrega de los documentos precisos, cosa que ha efectuado en fecha 4 de marzo de 2009.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene como único objeto la alteración del régimen de protección de la unidad edificatoria 13 de la manzana 14 del Centro Histórico. Este edificio está incluido dentro del grupo de edificios "Grupo I. Carácter Monumental, Clase 2ª. Edificaciones de carácter relevante" del Plan Especial de Rehabilitación Integrada.

Al margen de ello, no está ni calificado ni inventariado por el órgano competente en materia de Patrimonio Cultural en aplicación de la normativa prevista en la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.- La Dirección de Patrimonio Cultural en su informe propone la introducción de una serie de modificaciones en las propuestas de intervención permitidas por el expediente. No obstante, al no estar el edificio ni calificado ni inventariado (ni tan siquiera incoado el expediente pertinente para ello) de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo este informe no es vinculante.

Como consecuencia, aceptando que la documentación técnica aporta una motivación suficiente y respetable, la modificación propuesta por este expediente pertenece al campo de decisión municipal.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,